

032 MATEMATIKA ETA GEOGEBRA: BIKOTE OSAGARRIA

FUNTZIOEN ETA GRAFIKOEN HIZKUNTZA INTERPRETATZEN		
Maila: 3DBH	Ikasgaiak: Matematika	Saio kopurua: 8
Laburpena: <p>Funtzioen eta grafikoaren hizkuntzak berebiziko garrantzia du. Oso baliagarriak dira egunerokotasuneko fenomenoak deskribatu, interpretatu, aurreikusi eta azaltzeko. Hau da, hain zuzen ere, ikas egoera honen asmoa: grafikoak interpretatzeko gaitasuna garatzea.</p> <p>Horretarako, ikas egoera honetan ataza batzuk planteatuko dira eta hauei irtenbidea emateko, funtzioen hizkuntza eta hauen ezaugarriak ezagutu beharko dituzte eta klasean azaldutako kontzeptuak praktikotasunera eraman beharko dituzte.</p>		
Testuingurua:	Azken ekoizpena: <p>Talde bakoitzak txosten bat aurkeztu beharko du atazen ebazpenekin ondo argudiatuta</p>	
Metodologia: <ul style="list-style-type: none">– Ikas egoera planteatuko da aurrezagutzetik abiatuta.– Taldeka egingo dute lan, binaka edo hiruak gehien bat. Hala ere, talde handian ere arituko dira. Izan ere, proposatutako atazen ebazpenak amankomunean jarriko dira talde handian.– Bikoteak edo hirukoteak anitzak eta heterogeneoak izango dira.		
Jardueren sekuentzia laburra: <ul style="list-style-type: none">– Gaia hasi baino lehen, ikasleen aurrezagutzak aztertuko dira zenbait jardurekin.– Ondoren, funtzioen oinarriko ezaugarriak (izate-eremua eta ibilbidea, hazkundera, joera, periodikotasuna eta jarraitasuna) azalduko zaizkie azalpen teorikoak eta praktikoak tartekatuz.– Azkenik ataza sorta bat planteatuko zaie, non kontzeptu hauek praktikan jartzeaz gain, funtzioen portaera aztertu eta, oro ar, grafikoak interpretatu behar dituzte.		
Ebaluazio adierazleak: <ul style="list-style-type: none">– Datuak taula eta grafikoaren bitartez irudikatzen dituen.– Bi magnituderen arteko erlazio-eredua grafikoki interpretatu zein adierazten		

duen.

- Benetako egoerei buruzko taula-datu eta grafikoak kritikoki interpretatzen dituen.

Ebaluazio tresnak:

Ikaskuntzaz gain, prozesua ere ebaluatuko da. Horretarako, erabiliko dira: autoebaluazio eta koebaluazio galdetegiak, kontrol orriak, irakaslearen behaketa eta atazen txostenak ikasle bakoitzeko lana ebaluatu ahal izateko.